

16. NAHASTE BITARRAK

1. A eta B likidoek soluzio ideala sortzen dute. 45°C-tan, A osagaiak 56 mmHg eta B-k 78 mm Hg lurrun-presioa daukate.
 - a) Kalkula ezazu %34 mol A daukan soluzio baten lurrun-presioa nahasketa likidotan
 - b) Kalkula ezazu nahasketa likidoarekin orekan dagoen gazezko konposaketa
2. 25°C-tan ziklohexano-aren C_6H_{12} lurrun presioa 100 mm Hg da. Berriz, oktanoarena C_8H_{18} 20 mm Hg da. Zein izango da 25°C-tan, 120 g zikloh exanoz eta 80g oktanoz eginda dagoen nahasketa baten lurrun presioa?
3. 40°C-tan metanolaren eta etanolaren lurrun-presioak dira 260.5 torr eta 135.5 torr, hurrenez hurren. Kalkula ezazu 40°C-tan gazezko nahasketa ekimolekularra orekan dagoen eta bi alkoholez eginda dagoen nahasketa baten konpozaketa (%)
4. 30°C-tan, 174 g azetona (C_3H_6O) eta 828 g tolueno ($C_6H_5CH_3$) nahasten dira. Demagun portaera ideala. Datuak: $P^0_{\text{acetona}}(30^\circ\text{C}) = 600 \text{ mmHg}$; $P^0_{\text{tolueno}}(30^\circ\text{C}) = 200 \text{ mmHg}$. Kalkula itzazu:
 - a) 30°C-tan disoluzioaren lurrun presioa
 - b) Aipaturiko disoluzioarekin orekan dagoen lurruneko konposizioa
 - c) Bi osagaiez eginda dagoen disoluzio baten konposaketa, 30°C-tan orekan lurruneko konposaketa %25 azetona izateko
5. 25°C-tan, 100 cm^3 uretan 12.5 g osagai ez-ionikoa gehitzean lurrun-presioa jaisten da 23.8 mmHg-tatik 23.0 mmHg arte. Kalkula ezazu osagaiaren masa molarra

6. 2.3 g hidrokarburo ez-lurrunkorra disolbatzen da 97.7 g bentzenotan (C_6H_6). $20^\circ C$ -tan disoluzioaren lurrun-presioa 73.62 mmHg da eta bentzenorena 74.66 mmHg da. Kalkula ezazu hidrokarburoaren masa molarra.
7. Demagun portaera ideala. Zein izango da 500 mL ura eta 90 g glukosa ($C_6H_{12}O_6$) nahastean sortzen den disoluzio baten lurrun-presioa uraren lurrun-presioa 55.3 mmHg bada?
8. Azetonaz eta toluenoz eginda dagoen disoluzio bat $80^\circ C$ -tan irakitzen da. Temperatura honetan osagaien lurrun-presioak dira 1610 torr eta 290 torr, hurrenez hurren. Kalkula itzazu
- a) % mol-etan
 - b) % masa-etan
 - c) Irakite hastean sortzen den lurrunaren konposaketa

PROPOSATUTAKO JARDUEREN EMAITZAK

1. a) 70.5 mm Hg
b) 0.269
2. 73.6 mm Hg
3. %34.2
4. a) 300 mm Hg
b) %50
c) 0.875
5. 62.5 g/mol
6. 129.6 g/mol
7. 54.3 mm Hg
8. a) %35.6
b) %26
c) %74.9